Epeak eta izen-emate kuotak

XVI EJIP-en izena emateko epe muga 2018ko martxoaren 9a izango da.
Izen-emate kuota 65 €-koa izango da.

* Zarauzko Igerain aterpetxean gosaria, bazkaria eta ohea barne hartzen ditu izen-emate kuotak.

Epez kanpoko izen-emateak 80 €-ko salneurria izango du eta kasu honetan antolakuntzak ez du bermatuko zerbitzu guztiak eskainiko direnik.

Gastu gehigarriak:

Landa irteerak: 10 €.
Itxiera afaria: 10 €.
Landa irteera + itxiera afaria: 15 €.

Lanak bidaltzeko epe muga 2018ko urtarrilaren 12a izango da.

Behin lanak onartuta, ahoz edo poster bidez egingo dira aurkezpenak.

Lanak honako helbide elektronikora bidaliko dira:

editorialejip2018@gmail.com

Antolatzaileak

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea — Zientzia eta Teknologia Fakultatea / Facultad de Ciencia y Tecnología

aranzadi zientzia elkartea — Sociedad de Ciencias / Society of Sciences / Société de Sciences

Laguntzaileak

Sociedad Geológica de España

transmitting science

Sociedad Española de Paleontología

Zarauzko Udala

Programa de Doctorado en Cuaternario: Cambios Ambientales y Huella Humana

El Pakozoico www.pakozoic.com

Informazioa eta kontaktua

Helbide elektronikoa:
ejip2018@gmail.com
Web orria:
http://www.ejip2018.com
Facebook eta Twitter-en ere!

Lehen zirkularra

XVI EJIP Euskal Kostaldea

XVI. Ikerlari Paleontologo Gazteen Topaketa

Zarautz (Gipuzkoa) 2018ko Apirilaren 11tik 14ra

AURKEZPENA

Antolakuntza batzordeak Zarautzen (Gipuzkoa) ospatuko den EJIP topaketen 16. ediziora gonbidatu nahi zaitugu. Ikerlari Paleontologo Gazteen Topaketa hau 2018ko apirilaren 11tik 14ra bitartean egingo da.

Kantauri itsasoak bustia, Zarautz Urola Kostako itsasertzean kokauta dago. Gipuzkoako hiribildu hau interes paleontologiko eta geologiko handiko natur eremu batean kokatzen da. Era berean, aipatzekoak dira herriko alde zaharraren aberastasun artistikoa zein arkitektonikoa.

Gure taldetik batzar honetan parte hartzera gonbidatzen zaitugu, azken urteko paleontologiaren ekarpen eta aurrerapenak ezagutzera emateko aukera paregabea delakoan.

Zuen zain gaude!

LANDA IRTEERAK

XVI EJIP-eko parte hartzaileek irteera ezberdinak egiteko aukera izango dute. Irteera hauen helburua Zarautz inguruan dauden interes paleontologiko, geologiko eta historiko handieneko lekuak bisitariei erakustea izango da. Apirilaren 11 eta 14 bitartean proposatutako irteerak hauek direlarik:

• Duna eta Santiago-ko padura: Gipuzkoako duna sistema zabalena Zarauzko hondartza iparraldearen eta Iñurritza itsasadarraren ezker aldean kontserbatzen da. Goi Kretazeoko kareharri eta tupaz osatutako substratuaren gainean kokatzen da Kuaternarioan zehar osatutako lohi eta hareazko barra, zenbait lekutan 30 metroko potentzia izatera iristeraino.

• Ekainberri haitzuloa: Paleolito garaiko labar-artearen erakusgarri aparta da Ekainberri. Euskal Kostaldeko adibiderik ikusgarriena da, UNESCO-k gizateriaren ondare izendatutakoak.

• Marearteko zabalgunea eta Flysch-eko itsaslabarra: Deba-Zumaia arteko itsasbazterreko biotopo babestuaren ezaugarri nagusiak dira geomorfologia eta dibertsitate biologikoa. Zumaiako Flyscha da interes geologiko handieneko azaleramendua, berau baita mundu mailan muga geokronologiko aipagarri gehien dituen ebaketa. Hauetako bi estratutipo bezala izendatuak izan dira: D/S muga (61,1 Ma) eta S/E muga (58,7 Ma). Bestalde, azaleramendu honetan K/Pg muga (66,5 Ma) ere ikus daiteke, garai hartako espezieen %70 baino gehiagoren desagertzea erakusten duena, hauen artean dinosauroena, gainera P/E muga (55,8 Ma) ere agertzen da.

• Honetaz gain, interes historiko handia duen Zarauzko Santa María la Real monumentu multzoari bisita egingo diogu.